



HERRI BIZITZA BATZORDEAREN BILERA

Data: 2024-04-10 **Bilera zenbakia:** 37

Bilera ordua eta lekua: 19:00 bilera gelan

Parte-hartzaileak: Monica (guraso elkarte) , Nagore (zingotzia), Leire (Arbelaitz), Rosario eta Mari (Bizi nahi), Garazi (gazteak) eta Nerea (teknikaria)

LANDUTAKO GAI ORDENA

1. Azken batzordeko etxeko lanak.

Ekintzen berri eman elkarteetan

Korrika egitaraurako izen emate/ txartel erosketa gogorarazi

2025eko egutegirako ideia proposamen bozkatuena:

“Herriaren eboluzioa” guraso elkarteak proposatu du.

“Itsasondoko txoko kuttunak” gazteek proposatu dute.

“Itsasondoko meategiak” jubilatuek proposatu dute.

Apirila amaieran zabalduko da jendeak gogoan izan dezan argazkiak ateratzen joatea.

Herri eguna: Ekainaren 8an. Berriz biltzekotan daude zer egingo den zehazteko.

Jubilatu bidaia, lotuta dago. Maiatzaren 10ean joango dira Gasteizera, izen ematea maiatzaren 3 arte izango da.

2. Azken ekintzen balorazio laburra

Martxoak 9ko bazkaria eta Beatriz Egizabal: 47 lagun elkartu ziren, giro ederrean. Bazkaria oso ondo joan zen eta baita monologoa ere. Agian, bakarrizketa, luzeegia izan zela baloratu da eta umorea ere adineko emakume batzuentzat ez egokia ere.

Bi prezio ezberdin izatea (landun/ langabe) oso ondo baloratu da, gazte gehiago gerturatu baitziren.

Martxoak 14, 18:00 pintxo jana- 19:00etan Bizkarsoro Alzagan: 15 bat lagun elkartu ziren eta emanaldia ondo joan zen. Jana sobratu zen.

Martxoak 15, 19:00etan Ianire, Eider eta Esti solasaldi-emanaldia: Bizi nahi elkarte bete zen eta oso saio polita izan zen.

Ondoren, Araman, kantu afaria izan zen Jon Zubeldiarekin. Giro aparta jarri zuen eta 700€

bildu ziren Korrikarako.

Martxoak 22, Korrika txikia: Ondo joan zen. Parte hartze ona egon zen eta giro polita sortu zen.

Martxoak 23, Herrien arteko bazkaria: 140 lagun inguru elkartu ziren bazkarian, ondo joan zen orokorrean. Edaria menu prezioan sartzea baloratu behar da, edo argitzea aurrez, gaizki ulerturik ez egoteko.

Korrika, oso azkar pasa zela baloratu dute. Pena da, herri barruetan horrelako abiadurarekin pasatzea.

3. Hurrengo ekintzak herrian

Apirila

10: Ipuin kontaketa Maite Franko, 17:00 Haur txokoan (gaur izan da, 25 haur inguru egon dira)

15-19: Kirol astea:

15ean: Kirol egokitu saioa 5-12 urte, izen ematea egin behar da.

18an: Odol emaeleak 16:30

19an: Errealaren puzgarriak,

Smithy "jarduera fisikoa eta elikadura"

20an: Mendi irteera:

*** Bi ibilbide egongo dira. 10:00etan aterako dira plazatik eta Sarasolan hamaiketako akingo dute guztiek eta ondoren bakoitzak erabakiko du ibilbidea laburra edo luzeagoa egin nahi duten. Ibilbideko hainbat puntuetako argazkiak aterako dituzte eta hauek topatuko beharko dituzte ibiltariek.

23: Liburuaren eguna, JUANA liburuaren ikusentzunezkoa, 19:00 Bizi nahi elkartean.

25: Bingoa, 17:00 jubilatuetan

26: Euskaraz barra barra ihesgela autobusa, (4 txanda izen ematea)

Maiatza

3,4,5: Urkiko jaiak

11, 12: Urkiko asteburu magikoa.

17: Herriko ekoizleen azoka, 18:00 Plazan

22: Aurretiazko borondateen dokumentua (testamento vital) hitzaldi praktikoa

24: Kanpora sartzan antzerkia, 19:00 Eskola arkupean

29: Aurretiazko borondateen dokumentua (testamento vital) tailerr praktikoa

30: Bingoa, 17:00 jubilatuetan

4. Elkartetatik datozenak.

Podologoaren berri ematea eskatu da, herri bizitzan.

Hilero pintxo potea egiteko proposamena egin da: txozna eta jubilatutako elkartea daude gune fisiko bezala eta hainbat elkarte (jubilatutako, arbelaitz eta guraso elkartea) txandaka egitea izan daiteke aukera bat. Azken ostiralak izatea egokia izan daiteke, herriko beste ekintzak kontuan izanda. Gazteei komentatu zaie ea animatuko lirakeen eta ljitto elkarteari ere. Elkarrekin hitz egin eta erabakitzekotan gelditu dira.

5. Besteak:

- Musika eskola, baja emateko: apirilak 15-19
Izen emate berriak: maiatzak 1-10
- Herri bizitza batzordea ez da urria arte izango. Maiatzak 8an jai batzordea.
Proposamenik bada, bilera horretarako ekarri.
- Telefono zenbaki aldaketa udaletxeko mugikorrean: 613638732

ETXEKO LANAK	NORK	NOIZKO
<i>Ekintzen berri eman elkarrekin</i>	<i>Denok</i>	<i>Ekintzetarako</i>
<i>Festetarako ekintzak pentsatzen joan</i>	<i>Denok</i>	<i>Maiatzak 8</i>
<i>2025eko egutegiko argazkien gaia zabaldu</i>	<i>Nerea</i>	<i>Apirila</i>
<i>Podologoaren berri</i>	<i>Nerea</i>	<i>Apirilak 18</i>
<i>Pintxo potea hilero bai/ez</i>	<i>Denok</i>	<i>Apirila</i>
<i>Telefono aldaketaren berri eman elkarrekin</i>	<i>Denok</i>	<i>Apirila</i>
HURRENGO BILERA		
Hurrengo bilera: Maiatzak 8, 19:00etan jai batzordea		

- Herri bizitza batzordeko egutegia
Martxoak 6, Apirilak 10, Urria 9 eta azaroak 6
Maiatzak 8, ekainak 5, uztailak 10 eta irailak 4 jai batzordeak izango dira.